

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Hainbat baliabide oso garrantzitsuak dira gure zerbitzuak modu egituratu eta antolatu batean aurrera egin dezan.



FISIKOAK

Hauek izango dira erabiliko ditugun baliabide fisikoak:

- ❖ Lokal bat 345 metro karratu dituen, Gasteizen kokatua, eta bi gelatan banatuta egongo dena; konferentzia gela eta ofizina gela.
- ❖ Konferentzia gela, aulkiak eta pantaila handia izango ditugu, gure bezeroei txarлак eman ahal izateko eta gure zerbitzuaren inguruko tallerrak antolatu ahal izateko.
- ❖ Ofizina gela; ordenagailuak, aulkiak eta mahi bat egongo da, konkretuki zalantzak dituzten bezeroei lagundu ahal izateko.
- ❖ Gure proiektuko zakarrontzia.
- ❖ Kamioia, musukoak fabrikara garraiatzen dituen.

INTELEKTUALA

- ❖ Gure elkartearen izena (MALI), sortzaile bakoitzaren izenaren lehenengo letrarekin sortutakoa.
- ❖ Sare-sozialak eta web orria sortu eta erabiliko ditugu, bezeroak lortzeko eta hauek informatuta mantentzeko.
- ❖ Tailerrak eta hitzaldiak antolatuko ditugu, gure bezeroak interneten bidez informatzeko zailtasunak izan ez gero, guregana hurbiltzeko aukera izango dute informazioa pertsonalki jasotzeko aukeraz.
- ❖ Kutsadurak eta honekin zerikusia duten kausek, ingurumenean duten garrantziaz jabetuko gara, informazio objektiboa eta osoa eman ahal izateko bezeroei.

EKONOMIA-FINANTZIARIOA

Hauek izango dira erabiliko ditugun baliabide ekonomiko-finantziarioa:

- ❖ Bazkideen ekarpena: lehenengo inbertsioa 4 bazkideok egingo duguna, eta bakoitzak 3500 euro jarriko ditugu.
- ❖ Greenpeace enpresak (kutsaduraz arduratzen da) dohaintzak egingo ditu urtero gure enpresan laguntzeko, helburu berberak ditugulako.
- ❖ Udalaren diru-laguntzak izango ditugu, hainbat arlotan ekiteko eta laguntzeko gogoia duten gazteek osatutako sozietatea garelako.

GIZAKIA

- ❖ Miren: Miren taldea **motibatzeaz** arduratuko da.
 - Teknologiarekin daukan jakinduria baliatuz, bera izango da web orria sortu eta hau birmoldatzen joango dena. Horretaz aparte, bezeroei enpresaren berriak informartzearen ardura izango du, momentu oro egiten ari garenaren jakinaren gainean egon eta gure egunerokoa jakiteko.
- ❖ Luana: Bere perfila dela eta, Luana **diseinuaz** arduratuko da, liburuxkak sortzeaz eta sormeneko alderdiez, baita publizitateaz ere.
- ❖ Ainara: Ainara **negoiazioaz** arduratuko da.
 - Pertsona eta enpresekin sozializatzeko duen erreztasuna dela eta, bera izango da dendetako jabeekin hitz egingo duena (akordioetara iristeko, eguneroko harremana mantentzeko, berri, kexka edo gertakariren bat gertatuz gero hitz egiteko, besteak beste).
- ❖ Iker: Iker **lidergo** papera hartuko du.
 - Enpresaren ekonomiaz arduratuko da. Enpresak dituen diru iturri eta diru kontuen egunerotasunean jarraituko ditu. Dirua nola kudeatu eta non inbertitu jakingo du. Hau da, diruzainaren ardura hartuko du. Horretaz gain, diru sarreraren bat beharko lukeen moduan funtzionatzen ez badu edo diru iturriren bat kale egiten badu, egoera hori konpondu eta diru iturri berriak lortzearen ardura izango du.